



XLIX. Basauriko Ahots-Musika Topaketak

XLIX. Basauriko Ahots-Musika Topaketak

Gure urrezko ezteietara hurbiltzen ari gara, edizio honetan BAT (Basauriko Ahots-musika Topaketak - Basauriko Koru Masen Alardea) izenekoarekin 49. hitzordua betetzen baita. Gero eta zailago egiten zaigu, urterik urte kalitatezko eta askotariko taldeak ekartzen saiatzen gara eta. Hala ere, ziur gaude aurtengo edizioak ez duela aurrekoen inbidiarik izango, basauriarrek beti txalotu eta balioetsi baitituzte.

Edizio honetan guk bezala musika maite duten basauriar guztiek parte hartzea espero dugu; eta besteak abesbatza mundua ezagutzera eta ez hizkuntza, ez mugarik ez daukan arte unibertsal honetaz disfrutatzen animatu nahi ditugu.

- Orain dela parte bat urte BATa **maiatzera** aurreratu genuen, eta momentuz, udaberrian antolatzen jarraituko dugu.
- BATa maiatzaren **05etik 25era** bitartean izango da.
- Aurten oso **estilo desberdineko abesbatzak** izango ditugu: barrokotik hasi eta gaur egunera arteko musikara arte hainbat sasoitako eta estilotatik igarota. Horrela, bada, basauriarrei musika korala modu desberdinetan helarazi nahi zaie. Aurten **Bizkaiko abesbatzen** hautua egin dugu, etxetik hurbil ere abesbatza onak ere baititugu. Basauri Koralelkarateak Sarea Abesbatzarekin eta Biarte Dantza Eskolarekin batera **“Guatekea”** izeneko jai handia antolatuko du eta denontzat ezagunak diren abestiak gogoraraziko dizkigute.
- Aurtengo kontzertuak Oihartzuna korala (Muskiz), Los Tonos Humanos ganbera abesbatza (Galdakao), Iralabarri Korala (Bilbo) eta Soinu Bidea (hitzorduari hutsik egin ezin dion abesbatza) eta Basauri Koralelkarate Ugaoko Sarea Abesbatzarekin batera.
- Kontuan izan behar da **larunbatetako** kontzertuak **19:30ean** eta **igandeetakoak 19:00etan** direla.
- **Bost kontzertuetatik lau San Pedro elizan** izango dira eta **Basauri Koralelkaratearena Social Antzokian**, guztiak ere **doakoak**.

www.basaurikoralelkarate.org – Sar zaitez gure Facebookeko taldean.

KONTZERTUAK: DATA, ORDUA ETA LEKUA

CORAL OIHARTZUNA (Muskiz)

Maiatzak 05, larunbata

19:30 – San Pedro – Doan

CORO DE CÁMARA LOS TONOS HUMANOS (Galdakao)

Maiatzak 11, larunbata

19:30 – San Pedro – Doan

SOINU BIDEA (Basauri)

Maiatzak 12, igandea

19:00 – San Pedro – Doan

CORAL SAN ANTONIO DE IRALABARRI (Bilbo)

Maiatzak 19, igandea

19:00 – San Pedro – Doan

BASAURI KORAL ELKARTEA

UGAOKO SAREA ABESBATZA

Dantza: Biarte Dantza Eskola

Director: José Angel Robles

Maiatzak 25, larunbata

19:30 – Social Antzokia – (Txarteldegian edo Basauri Koral Elkartean lortzen diren sarrerak doakoak izango dira. Txarteldegia bidez hartzen saiatuz gero, kobratu egingo dira.)

ABESBATZAK

CORAL OIHARTZUNA (Muskiz)



Ahots mistoko abesbatza honek 1981eko udaberrian hasi zuen bere ibilbidea, Coral Muñatones izenarekin. 1987an aldatu zuen izena gaur egungo Coral Oihartzuna izenagatik. Udalerrian egiten diren koru-musikaren inguruko ekitaldi guztietan parte hartzen du.

Alberto Rios izan zen abesbatzaren lehen zuzendaria eta sortzaileetako bat. 1995ean José Luís Sáez arduratu zen zuzendaritzaz, eta 2017tik aurrera Marian Balén. 2022ko martxoan Eduardo López de Herediak hartu zuen zuzendaritza.

Urteotan, abesbatzak honakoetan parte hartu du: Begoñako Bizkaiko Abesbatzen Astea, Euskal Herriko udaberriko eta Gabonetako kontzertuak, Bizkaiko Koral Eguneako kontzertuak, Behotsik orkestraren 10. Urteurrenean Euskalduna Jauregian, Candedako Abesbatzen Topaketan (Avila). Honako habanera topaketetan ere parte hartu du: Llanes, Cudillero, Infiesto, Arriondas, Gijón (Asturias), Getxo (Bizkaia). Abesbatza ziklo hauetan ere egon da: Castro Urdiales, Reocin (Kantabria), Burlata, Altsasu eta Iruñea (Nafarroa), Miranda de Ebro (Burgos), Urnieta (Gipuzkoa) eta Santander. Balmaseda eta Karrantzako (Bizkaia), Valladolid, Burgos, Segoviako eta Orreagako Errege Kolegiatako Musika Sakratuko Kontzertuetan, Bilboko Fundazioaren 700. urteurrena ospatzeko kontzertuan ere parte hartu du.

Bere errepertorioa zabala eta askotarikoa da, bertan euskal musika korala, habanerak, hainbat herrialdeko folklorea eta polifonia sakratu eta profanoa nagusitzen dira.

CD bi grabatu dituzte, MUSKIZ ABESTEN (Muskiz Canta) eta NIRE BIZITZA ABESTEN (Mi Vida Cantando).

CORO DE CÁMARA LOS TONOS HUMANOS (Galdakao)

https://www.facebook.com/lostonoshumanos/?locale=eu_ES



1985ean sortua, Los Tonos Humanos ganbera-abetesatzak XVI. mendetik XVIII. mendera bitarteko aldiari zentratu zuen bere musika-jarduerari. Duen erreperitorio zabalak Errenazimentuko polifonista handietatik Buxtehude, Bach, Telemann edo Purcell bezalako europar konpositore barrokoen obra sorta zaindua barne hartzen du, arreta berezia jarritz barroko frantseseko musikan (Campra, Mondonville, Charpentier...).

Urtez urte, entzuteko ezohikoak bezain ederrak diren obra handiak gehitu dituzte erreperitorioan: Campraren *Requiem*, Telemannen *Du aber Daniel* kantata, Charpentierren *Messe de minuit*, Mozarten *Visperas Solemnes del confesor*, Buxtehuderren *Membra Jesu Nostri*, Haydnen *Die sieben letzten Worte*, Bachen hainbat kantata edo M. Haydnen *Requiem*, Vivaldiren *Gloriarekin* batera abesbatzak Zenarruzan bere hogeita hamargarren urteurrenean (2015) interpretatu zuena.

Duela gutxi, noizbehinka, Los Tonos Humanos ondorengo erreperitorioetan sartu da Poulenc-en *Gloria* interpretatuz, Jakob Haanen *Missa Brevis* edo grabatuta duten Faureren *Requiem* lana.

SOINU BIDEA (Basauri)



Basauriko Soinu Bidea taldeak ez dio hutsik egiten BATarekin duen hitzorduari. Basauriko Kooperatiba Ikastetxearen babespean 1975ean sortutako taldearen lehenengo zuzendaria Amaia Zarandona izan zen. Ordutik urtero parte hartzen dute Udaberriko kontzertuetan eta Bizkaiko Abesbatzen astean.

Juan Pablo II. aita santuaren aurrean zenbait aldiz eta Vatikanoko Urte Berriko Meza (2006) abesteko aukera izan dute. Era berean, Europako hainbat herrialdetan kontzertuak eskaini dituzte, besteak beste Grezia, Alemania, Italia, Frantzia eta Errusian.

Abesbatza honek ez du zalantzarik izan Kuba edo Argentinara bidaiatu eta hango Euskal Etxeetan (Buenos Aires, Iguazu edo Calafatekoetan) kontzertuak eskaintzeko. Azken urteotan gainera, Myanmar, Tailandia, Kenia eta Tanzanian abestu dute.

Eusko Abeslari Txikien Elkartearen sortzaileetako bat da. Hori dela eta eskatzen zaizkien ekintza guztietan parte hartzen dute eta munduaren luze-zabalean musikaren kultura hedatzen saiatzen dira.

CORAL SAN ANTONIO DE IRALABARRI (Bilbo)

<https://www.coralsanantonio.org/>



1998ko ekainaren 13an, pertsona talde batek proiektu koral bat hasi zuen San Antonio egunean Frantziskotarren elizan hilabetea ikasitako kantu pare bat abestuta. Ekainaren 13 hartan hasitako amets hura ez dakigu noraino iritsiko den. Urte bereko abenduaren 26an lehen kontzertua eskaini zuten.

Sortu zenetik, lan handia egin du, taldekide guztien inplikazioan, ahaleginean eta ilusioan oinarrituta, eta, horri esker, Bilbon eta Bizkaian errotuta dagoen abesbatzarik ezagunenetako bat da. -25 urteotan, kontzertu ugari egin ditu Euskal Herrian eta Espainian, 2008an Euskaldunan "Bilbao Solidario" taldeak El Consorcio, Los Mitos eta Urko taldeen parte-hartzearekin egindako kontzertua berezia azpimarratu beharra dago. Bilbo 700 Fundazioak duela hamabi urtetik antolatzen duen Bilboko "Gau Zuria"n ere parte hartzen du. Azken bi urteetan Musika-Músican.

Iralabarriko San Antonio Abesbatzak hainbat hiritan abestu du, hala nola, Madrilan, Bartzelonan, Sevillan, Granadan eta Santanderren. Eta atzerrian, Asisen, Florentzian, Pragan, Oporton, San Petersburgon, Budapestean, eta 2002an Eurodisney Parisek aukeratu zuen parke tematiko bereko Estage Jaialdian parte hartzeko.

Birak egin ditu Lur Santura, Berpizkunde igandean Hilobi Santuan abestuz, eta Emausen, San Salvadorren, Santa Katalinan eta Deikundearen Basilikan aritu da. New Yorken ere aritu da, Eusko Etxearen mendeurrenean, Lehendakaria bertan zela. Eta aurora borealei ere abestu die Ipar Poloaren bihotzean.

Abenduaren 8tik 10era Madrilan bira egin ondoren, hilaren 23an lehen kontzertuaren 25. urteurrenako kontzertua eskaini zuen. Hasiera-hasieratik Maite Zugazagak zuzentzen du, eta bere egungo pianista Edda Szabo da.

BASAURI KORAL ELKARTEA www.basaurikoralelkartea.org

UGAOKO SAREA ABESBATZA <https://www.facebook.com/UgaokoSareaAbesbatza/>

DANZA BIARTE

Director: José Angel Robles



Aurten gure BATaren XLIX. edizioa izango dugu eta beti bezala zerbait ezberdina egin nahi dugu. Batez ere, abesbatza musika ikuskizuna ere badela erakutsi nahi dugu. Horregatik zerbait berritzailea egingo dugu; GOAZEN GUATEKE BAT EGITERA Social Antzokian, sorpresa askorekin. Beti bezala, proiektu berri eta ezberdinak sortzen saiatzen gara gure ikusle guztien bihotzak hunkitzeko asmoz.

Anfitrioi bezala edizio honi amaiera ematea dagokigu eta Ugaoko Sarea Abesbatzarekin harremanetan jarri gara ahotsak bateratzeko. Gainera, Biarte Dantza Eskolak bere dantzekin lagunduko digu. Hori guztia Jose Angel Roblesen gidaritzapean eta ikusmin apur batekin, normalean eskaintzen dugunetik oso ezberdina den proiektua baita.

Eskerrak eman nahi dizkiegu parte-hartzaile guztiei asmo handiko proiektu hau gauzatzen laguntzeagatik. Espero dugu basauriar guztiok hurbilduko zaretela eta BATen edizio honetaz gozatuko duzuela.



ESZENATOKIAK ETA PREZIOAK



Aurtengo edizioko **bost kontzertuetatik lau San Pedro elizan** egingo dira; lehenengoa, berriz, herriko kaleetan zehar izango da. Horiek guztiak **doakoak** izango dira, beraz.

Azpimarratu beharra dago **Basauriko Udalak** emandako diru-laguntzari esker goza dezaketela ikus-entzuleek halako ospe eta kalitatedun abesbatzez.

Ez dugu ahaztu behar **Social Antzokiak** eta **San Pedro elizak eskainitako laguntza** bai BATa antolatzeko bai Basauri Koral Elkartek proposatutako bestelako egitasmoetarako ere.



HISTORIA DEL BASAURI AHOTS-MUSIKA TOPAKETAK

BAT (lehen Basauriko Abesbatzen Agerketa) 1973an hasi zen, San Fausto jaiekin batera eta Pedro Aldana zuzendariaren eskutik. Urte hartan hiru abesti eskaini zituen abesbatzak: P.R. Iruarrizagaren 'Baserritarra', J. Uruñuelaren 'Maitia nun zira' eta V. Zubizarretaren 'Ama begira zazu'.

Hastapenetan Bizkaiko koruei baino ez zitzairen gonbidapena luzatzen, baina urte batzuk geroago Euskal Herriko beste eskualdeetako abesbatzak ere etortzen hasi ziren. Parte hartzaileen artean aipatu behar ditugu Laudio, Lekeitio, Zaldibar, Getxo, Errenteria, Vitoria-Gasteiz, Biarritz, Olite edo Bermeotik etorritako taldeak. Urteak aurrera joan ahala Koralak aukerak zabaltu nahi izan zituen eta 1993tik aurrera, besteak beste Kenya, Kuba, Eslovenia edo Txekiar Errepublikako abesbatzek, Basauriko zaleen belarriak gozatu dituzte euren musikaz. Euretako askok urtero urrian eta azaroan gauzatzen den Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte hartu dute.

Gaur egun BATa Basauriko kultura-ekitaldien artean ezinbesteko hitzordua da. Hori dela eta, urtero Korala kalitatezko ahots-musika topaketa eskaintzen ahalegintzen da, basauriar guztiei arte mota hau hurbildu ahal izateko.

ZUZENDARIA – JOSÉ ÁNGEL ROBLES



José Ángel Robles musikaria da, Musika Hezkuntzan diplomatua, Psikopedagogian lizentziatua eta komunikazio arloko profesionala. Bilboko Jesús Aranbarri kontserbatorioan goiz hasi zituen ikasketak, hamar urterekin hain zuen ere. Bertan egin zituen piano ikasketak eta, era berean, zuzendaritzan trebatzen hasi zen; hasieran Jesus Aranbarri abesbatzako kide bezala eta zuzendari bezala ondoren.

Abesbatza zuzendaritzan Euskal Herriko Abesbatzen Elkartean (EAE) hezi zen Johan Duijck zuzendari, konpositore, pianista eta pedagogo polifazetikoaren ikastaroen bidez. Halaber, irakasle izan ditu Juanjo Mena, Maite Oca, Enrique Azuza, Julio Lanuza, Basilio Astulez, e.a.

Abeslari ibili da, besteak beste, Bilboko Koral Elkartean eta Rossini Koruan.

Zuzendari honako taldeetan aritu da: Larrabetzuko Gaztelumendi abesbatzan (1994-2002), Abots Ederra ganbera abesbatzan (1999-2003), Kantarte-Zigor Gazteder abesbatzan (2002-2003 eta 2015) eta Bizkaiko Ingeniarien abesbatzan (2001-2016).

Abesbatza zuzendaritzan 25 urtetik gorako eskarmentua dauka, konpositorea da eta hainbat abesbatza lan moldatu ditu.

Gaur egun Nervión Kanta izeneko musika egitasmoa garatzen ari da, 2017ko abuztutik Ugaoko Sarea abesbatzaren zuzendari eta 2018ko otsailetik Basauri Koral Elkartearen zuzendari da.